



||| ABUZTUKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN... ||||||||||||



Festetan parte-hartzaile

SANINAZIYUEK. Bakallau txapelketa izango omen dugu abuztuaren 1ean. Pozgarria da benetan elkarte gastronomikoen, norbanakoen eta Udalak herritarren parte-hartzea bultzatu nahi izatea. Urteak dira gure jaiak 'kontenplatiboak' bilakatu zirenetik, bazen garaia horrelako ohiturekin apurtzeko. Lortuko al dute bilatutako inplikazio eta freskotasuna? Espero baietz. Hala ere, saiakerak beti daude ongi. Frogatu gabe ez dago aurrera ateraterik.



Idea aparta

ENTZIERRO TXIKIA. Fuerte dabilza herriko talde desberdinak. Horren froga, sortu berria den Zezen Beltz taldea. Azpeitiko jai nagusiei beraien ukitua eman nahi diote. Horren harira, entzierroa antolatuko dute haurrentzat. Zezen-plaza eta guzti! Giro paregabea jarriko dute ziur. Segi horrelaxe.



||| alex silva |||



Zorte on!

LAGUN ONAK. Kirolari kantera 'potentea' dugu gure herrian. Pilotariak emandako zorientasunaz gain, Lagun Onak futbol taldeko kideak ere indartsu dabilza. Hainbat jokalarik badoaz beste taldeetara. Ea, azpeitiarren ahotsa entzuten jarraitzen dugun kirol munduan ere. 🍷